



Irakurketa Erraza

OACNAri buruzko informazioa
Nafarroak Irisgarritasun Kognitiboko Bulegoa

1. Zer da OACNA?

OACNA **Nafarroak Irisgarritasun Kognitiboko Bulegoa da.**

OACNAn desgaitasuna dugun eta desgaitasuna ez dugun pertsonok lan egiten dugu.

Bulego honetan lan egiten dugun pertsonok mundua ulertzen errazagoa egiteko gai ezberdinen inguruan formazioa jaso dugu.

Hauek dira eskaintzen ditugun zerbitzuak:

- Espazioak **ebaluatzen** ditugu, hau da, eraikin baten barruan leku batera hetza erraza den ala ez ikusten dugu.
- Dokumentuak **Irakurketa Errazera** egokitzen ditugu, hau da, dokumentuak ulertzeko errazak izan daitezen egokitzen ditugu.
- Irakurketa Errazean dauden dokumentuak **balioztatzen** ditugu, hau da, testuak ulertzen errazak diren ala ez ikusten dugu.
- Eta beste gauza batzuk gehiago.

2. Zergatik da garrantzitsua Irisgarritasun Kognitiboa?

Pertsona guztiok informazioa ulertzeko, komunikatzeko eta inguratzen gaituen munduan parte hartzeko eskubidea dugu. Eskubideak pertsona batek egin ditzakeen gauzak eta gainontzekoek errespetatu behar dituztenak dira.

3. Norentzat da Irisgarritasun Kognitiboa?

Osasunaren Mundu Erakundeak dio mundu osoan 10 pertsonetatik pertsonek inguratzen dituen munduaren informazioa ulertzeko zailtasunak dituztela.

Irisgarritasun kognitiboa ona da:

- Desgaitasun intelektuala edo garapenaren nahasmendua duten pertsonentzat.
- Adineko pertsonentzat.
- Orain dela gutxi beste herrialde batetik etorri diren eta hizkuntza kontrolatzen ez duten pertsonentzat.
- Irakurketan, idazketan eta kalkuluan zailtasunak dituzten pertsonentzat.
- Haurrentzat.
- Eta beste askorentzat.

4. Zer egiten dugu OACNAn?

OACNAn gure bezeroei
ondorengo zerbituz hauek eskaintzen dizkiegu:

Irakurketa Erraza



Dokumentuak egokitu eta balioztatzen ditugu
ulermen zailtasunak dituzten pertsonak
informazioa eskuragarri izan dezaten.

Irisgarritasun Kognitiboa espazioetan



Erakunde, instituzio eta enpresen eraikinen
Irisgarritasun Kognitiboa ebaluatzen dugu.
Horrela ulermen zailtasunak dituzten pertsonak
autonomoagoak dira parte hartzeko
eta haien espazio, produktu eta zerbitzuak erabiltzeko.

Formazioa



Mundua pertsona guztientzat
ulertzen errazagoa izan dadin
kurtsoak ematen ditugu.

Hauek dira ematen ditugun kurtsoetako batzuk:

- Desgaitasuna duten pertsonen beharrei nola erantzun.
- Desgaitasuna duten pertsonen eskubideak.
- Testuak Irakurketa Errazera nola egokitu.
- Eta beste gauza batzuk gehiago.

Inklusioa



Desgaitasuna duten pertsonak
gizartearen barne egon daitezen
lan egiten dugu.

Horregatik beste entitate batzuekin batera lan egiten dugu
eta sentsibilizazio ekintzak egiten ditugu
gizarteak desgaitasuna duten pertsonak ezagutu ditzan.

Irisgarritasun Unibertsala

OACNA **Navarra Más Accesible** plataformaren barruan dago.

Navarra Más Accesibleren barruan

elkarte ezberdinak gaude

eta guztion artean

Irisgarritasun Unibertsala eskaintzen dugu,
hau da, pertsona guztientzako irisgarritasuna.

Navarra Más Accesibleren barruan

elkarte hauek gaude:

- COCEMFE: irisgarritasun fisikoa eskaintzen du.
- Eunate: entzumen irisgarritasuna eskaintzen du.
- Fundación Iddeas: ikusmen irisgarritasuna eskaintzen du.
- ANFAS: irisgarritasun kognitiboa eskaintzen dugu.

5. Kontaktua



OACNAren arduraduna

Sonia Ganuza da.

Soniarekin hitz egiteko:



Deitu 948 27 50 00 **telefono** zenbakira.



Idatzi **mezu** bat

s.ganuza@anfasnavarra.org helbidera elektronikora.

ANFASen web orrialdea ikusteko

klikatu esteka honetan:

<https://www.anfasnavarra.org/>

OACNA Iruéako Pintor Maeztu 2. zenbakian dago.